



Epaitegi Gorenak ez du onartu Kristau Eskolak aurkezturiko “ incidente de nulidad”

Joan den astelehenean STEE-EILASek izan zuen Epaitegi Gorenak Kristau Eskolak sartutako “incidente de nulidad” inguruan emandako epaiaren berri. Dakizuenez KE-k helegitea sartu zuen Epaitegi Gorenak Patronalak zigortu zituenean EAEko Gizarte Ekimenezko Ikastetxeen Hitzarmenean ezarritako soldatak ordaintzera.

Berriro ere, justiziak langileei arrazoia ematen die eta bere tokian jarri ditu Patronalak. Hala ere, baliteke Kristau Eskolak eta AICE-k azken urteotan epaitegietan daramaten ihesbidea hemen ez amaitzea. Patronalek badaukate Epaitegi Konstituzionalean helegitea sartzerik eta baita, beranduago, Estrasburgon ere.

Helegitea ez onartzeak aukera ematen digu sektoreko langileoi 2013ko uztailaren 7 arteko diru-zorrak epaitegietan erreklamatzeko eta, amaieraraino eramanez gero, irabazteko ere . Uztailaren 8tik aurrera ikastetxeek murriztutako diru kopurua erreklamatu daiteke, baina demanda hauek eten egingo dira hitzarmenaren indarraldiari buruzko gatazka kolektiboaren inguruan behin betiko epaia izan arte; eta honek – eta ezarritako murrizketak ere- oso luzaera jo dezake.

Unean uneko informazioa emango dizuegu.

Hezkuntzan STEE-EILAS

ARABA: Eulogio Serdan, 5	01012 Gasteiz	☎ 945 14 11 04	☎ 945 14 43 02	araba@stee-eilas.org
BIZKAIA: Nikolas Alkorta, 3 (Zabalburu)	48003 Bilbao	☎ 944 10 02 98	☎ 944 10 13 60	bizkaia@stee-eilas.org
GIPUZKOA: Baso-txiki, 30-34 (atzealdea)	20015 Donostia	☎ 943 46 60 00	☎ 943 45 36 27	gipuzkoa@stee-eilas.org
NAFARROA: Descalzos, 72 (Ionja)	31001 Iruñea	☎ 948 21 23 55	☎ 948 22 97 90	nafarroa@stee-eilas.org